

OSAKIDETZA BILBO ESKUALDEA COMARCA BILBAO-.BiE.



**INGURUMEN ADIERAZPEN EGUNERATUA
2011ko urtarrila-abendua**

AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA

- 1.1 Sarrera**
- 1.2 EMAS erregistroa eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) irispena**
- 1.3 Comarca Bilbao- Bilbo Eskualdea: BiE**
- 1.4 Emandako zerbitzuaren deskribapena**

2 INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA

- 2.1 Ingurumenerako Politika**
- 2.2 Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren aurkezpena**

3 BIE – BILBO ESKUALDEKO INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

- 3.1 Ingurumen alderdiak**
- 3.2 Ebaluazio-irizpideak**
- 3.3 Ingurumen-alderdi esanguratsuak**

4 XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMEN KUDEAKETAKO PROGRAMA

5 INGURUMEN-JOKABIDEA

- 5.1 Oinarrizko adierazleak eta beste ingurumen-adierazle batzuk**
- 5.2 Arau-xedapenen arabeko ingurumen-jokabideak**
 - 5.2.1 Ingurumenaren eremuan aplikagarri diren legezko baldintzak**
 - 5.2.2 Legezko baldintzak eta ingurumen izaerako beste baldintza batzuk betetzea**

6 INGURUMEN ADIERAZPENAREN AURKEZPENA

7 DATUAK ZENTROKA (ERANSKINA)

8 EGIAZTATZEA ETA BALIOZTATZEA

AURKEZPENA

1.1 SARRERA

Europako CE 1.221/2009 Araudiak, erakundeak beren borondatez Europako Erkidegoko Ingurumen-Kudeaketa eta Auditoretzako III. EMAS Sistemari atxikitzea ahalbidetzen duenak, ezarritakoa betez, eta, aurrerantzean, publikoari oro har eta intereseko beste alderdi batzuei Bilbo Eskualdeko (BiE) ingurumenarekiko eraginari eta jokabideari buruzko informazioa, baita gure ingurumenarekiko jokabidearen etengabeko hobekuntzari buruzkoa ere, emateko asmoz, bertan zera jasotzen da: Ingurumen-adierazpen osoan (2010eko datuak) aurkeztutako informazioa eguneratuta (EMASeko erregistroa berritzeari dagokiona).

Adierazpen honen abiapuntu gisa, publikoari, orokorrean, eta bestelako alderdi interesatuei ingurumen-jokabidearen arloko helburuak eta eboluzioa komunikatu nahi zaizkie, Osakidetza (CNAE 862 kodea) zerbitzu-erakunde publikoa den Bilbo Eskualdearen (BiE) komunikazioan eta kudeaketan gardentasuna bilatzen delarik.

Eranskineko 7. puntuan: datuak osasun zentroka, BiE osatzen duten zentroetako bakoitzak daukan ingurumenarekiko jokabidea deskribatzen da.

Hauexek dira harremanetarako datuak, non BiEren ingurumenari buruzko adierazpena jendaurrean jartzen den:

Kale Nagusia 62. zk., 2.a 48011 - Bilbo
Telefonoa: 94 400 73 00
Fax: 94 400 73 77
e-mail: andres.villarpizarro@osakidetza.net
Harremanetarako: Andrés Villar Pizarro

1.2 EMAS ERREGISTROA ETA INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN (IKS) IRISPENA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-Sailburuordetzak 2009ko urtarrilaren 26an erregistratu zuen Bilbo Eskualdea (BiE) EMAS erregistroan, ES-EK-000046 zenbakiarekin, "Lehen Mailako Arretako zerbitzuak (Kudeaketa administratiboa eta Asistentzia Sanitaria) ematea" irispenerako, jarraian zehazten diren lekuetan garatzen dena:

LEHEN MAILAKO ARRETA UNITATEAK (LMAUak)	ZENTROAK	M2	Helbidea	Erabiltzaileen hitzordu kopurua***	
				31.12..010	31.12.011
1.- BASURTU-ALTAMIRA	BASURTU OZ	1.500	Iparraldeko Lorategiak, 1 - 48013	145.903	149.753
	ALTAMIRA OZ	320	Altamira, 11 - 48013	36.849	36.789
2.-BEGOÑA	**BEGOÑA OZ	1.100	Virgen de Begoña, 32 – 48006	140.047	174.636
3.-BOLUETA-SAGARMINAGA	SAGARMINAGA OZ	410	Sagarminaga, 56 – 48004	104.243	98.835
4.-ALDE ZAHARRA	**Alde Zaharra OZ	950	Ronda, 6 – 48006	103.091	105.302
5.-DEUSTUA - ARANGOITI	*DEUSTUKO OZ	2.375	Luis Power, 18 – 48014	351.281	397.459
	C. S. ARANGOITI	400	Berribidea, 50 - 48014	42.720	41.249
6.- EL KARMELO	EL KARMELO OZ	450	Haroko plaza, 2 - 48004	122.759	121.652
7.-ETXANIZ SUHILTZAILEA	**ETXANIZ OZ	2.000	Etxaniz suhiltzailearen plaza, 1 - 48010	324.459	339.898
8.-GAZTELEKU	GAZTELEKU OZ	1.200	Vianako Printzearen kalea, 5 - 48007	196.629	201.227
9.-INDAUTXU	*INDAUTXU OZ	2.100	Areitza dk. 12, -48011	362.738	481.441
10.-J. SAENZ DE BURUAGA	**J.S. BURUAGA OZ	2.050	Henao, 7-9 – 48009	101.665	104.948
11.-MESEDEETAKOA	MESEDEETAKO OZ	350	Luis Iruarizaga, 1 – 48003	88.982	89.977
12.-ABUSU	ABUSUKO OZ	600	Ibaialde z/g - 48003	107.267	110.471
13- LARREAGABURU	LARREAGABURU OZ	700	Indalecio Prieto, 11, 48004	97.806	110.022
13.- OTXARKOAGA	**OTXARKOAGA OZ	1.200	Zizeruene, 1 – 48004	157.472	153.626
14.-ERREKALDE	*ERREKALDE OZ	2.100	Larraskitu errep., 2 - 48002	391.402	390.349
15.-SAN ADRIAN	SAN ADRIAN OZ	512	Juan de Garay, 51-53 – 48003	150.796	101.821
6.-SAN INAZIO	SAN INAZIO OZ	1.800	Larrako torre, 9,- 48015	244.544	239.614
17—SANTUTXU-SOLOKOETXE	*SANTUTXU OZ	1.400	Sorkunde, 3 – 48006	249.159	249.122
18.-TXURDINAGA	TXURDINAGA OZ	1.900	Txomin Garat, 16 – 48004	148.668	158.897
9.-ZORROTZA - ALONSOTEGI	ZORROTZA OZ	880	Zorrotza-Kastrexana errep. 20-22 atzealdea 48013	127.181	150.390.
	ALONSOTEGI OZ	530	Camino de Erroteta, s/n – 48810	33.220	34.443
20. ZURBARAN	ZURBARAN OZ	550	Zumalakarregi etorb., 99 - 48007	109.863	112.590
GUZTIZKOAK	24	28.877		3.938.744	4.151.568
ESKUALDEKO ZUZENDARITZA	+1	1.500	Kale Nagusia, 62 - 48011	50	57

* Anbulatorioetan kokatutako osasun-zentroak.

** Arreta espezializatuko zerbitzua daukaten osasun zentroak.

***Erabiltzaileen hitzorduak + eskualdeko plantilla: adierazleak kalkulatzeko baliatutako datua

1.3. COMARCA BILBAO- BILBO ESKUALDEA: BiE

Guztira, 26 lantoki dauzkagu, 24 osasun-zentrotan banatuta dauden Lehen Mailako Arretako 20 unitatetan egituratuta. Atentzioa astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara, 24 osasun-zentroetan ematen da. Gainerako orduetan, Etengabeko Arretako Guneak arduratzen dira; kopurua beharren arabera egokitzen da. 9 zentro izaten dira larunbat goizetan, 5 larunbat arratsaldeetan, igande eta jaiegunetan; eta, zentro bat gauetan 00:00etatik 08:00etara. Bestalde, Bilboko Kale Nagusiko 62an Eskualdeko Zuzendaritzaren egoitza dago. 2011tik Bilbo Eskualdera atxiki da Urbi-Basauriko zentroa, datozen urteetako ingurumen kudeketaren sistemaren irispenean sartu egingo dena.

Lehen Mailako Arreta – Osasun Zerbitzu Publikoa



Zuzendaritza-egitura eta egitura teknikoa dugu Eskualde osorako. Laguntzako egitura gisa, zuzendaritzetan dauden profesionalen gain, honakoak dauzkagu: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea, Eskolako Osasun Zerbitzua, gizarte langile 2 eta Bezeroaren Arretarako 4 zerbitzu; azken horiek anbulatorioetan daude, non Lehen Mailako Arreta eta Arreta Espezializatua konpartitzen diren.

Zuzendari Gerentea da Erakundeko arduradun gorena, eta, ondorioz, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen eremuekin loturiko alderdi guztien liderra da, jardueren plangintza eta zehaztapena gainerako liderren esku uzten dituelarik.

1.4. EMATEN DUGUN ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Gure bezeroei ematen dizkiegun osasun zerbitzuak Zerbitzu-zorroan jasotzen dira:

ZERBITZU SANITARIOEN ZORROA:
1. Oinarrizko prozedura diagnostikoak
2. Lehen Mailako Arretatik eskura daitezkeen prozedura diagnostikoak
3. Prozedura terapeutikoak
4. Prebentzioa, Osasunaren sustapena, Familia arreta eta arreta komunitarioa
5. Informazioa, Zaintza epidemiologikoa
6. Berariazko arreta arrisku-talde espezifikoak: haurrak, nerabeak, emakumeak, helduak, adinekoak, etxeko indarkeria eta tratu txarrak adin guztietan, arreta aringarria gaixo terminalei.
7. Arreta Osasun Mentalari.
8. Arreta aho-hortzen osasunari

Zerbitzu-zorro hau urtero berrikusi, berretsi, hobetu edo berritzen da.

Gure **Prozesu-mapan** identifikatutako prozesuen bidez hedatzen da jarduera, eta horien artean dago **Ingurumen-Kudeaketa**. Jabea da helburuak lortzeko beharrezko ekintza guztiak egiteko ardura daukana.

2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA:

2.1. INGURUMENERAKO POLITIKA


BiEko zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak politika hori zuzentzen eta zehazten dute erakunde osoan zehar ezar dadin, eta **Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) helburuak** ezartzeko erreferentzia dira.

BiEren ingurumen-politika printzipio hauetan zehazten da:

- Politikaren esanahia **komunikatzea**, pertsonal guztiak ulertu eta eraginkortasunez bete dezan.
- Ingurumenaren Kudeaketaren Eskuliburuan jasota dagoen Ingurumena Kudeatzeko Sistema **zehaztea eta abiaraztea**.
- **Giza baliabideak eta baliabide materialak** ezarritako eskakizunak betetzera **bideratzea eta bezeroak eta interesa daukaten alderdiak ingurumenaz jabearaztea eta beraien gogobetetasuna sustatzea**.
- Ez-adostasunak gutxitzeko nahikoa baliabide esleitzea.
- **Langile guztien informazioa eta partaidetza bermatzea** gure jarduerak ingurumenean duen eraginaz jabetu daitezen, betiere kutsadura prebenitzeko eta baliabide naturalen aurrezpena sustatzeko guztiok daukagun konpromisoa ahaztu barik; bereziki baliabide natural urrirei erreparatuko diegu.
- Beharrezko aginpidea eskuordetzea prozesuen arduradunei, **sistema arauaren arabera mantentzen dela ziurtatzeko**, eta sistemaren funtzionamenduaren berri eman beharko zaio nahitaez zuzendari gerenteari etengabeko hobekuntza gisa.
- **Ingurumenerako politika interesa daukaten alderdien eskura jartzea**.
- Indarreko **arauak eta legeria betetzen direla bermatzea**, baita erakundeak hitzartzen duen beste edozein konpromiso ere.

Ingurumena kudeatzeko taldeak ezarritako politika dokumentatu, abiarazi eta egunean izango du, urtero aztertuz, gure jardueren garapenari egokitu ahal izateko.

BiEko profesional guztion erantzukizuna da ingurumenerako politika hau nahitaez betetzea.



Bilbon, 2007ko urriaren 22an
JESÚS LARRAÑAGA GARITANO
BILBO ESKUALDEKO ZUZENDARI GERENTEA

Zuzendaritzak balekotzat jo du 2007ko Ingurumenaren adierazpena.

Ingurumenari buruzko adierazpen honi buruzko informazioa bermatzeko, kartelak jarriko dira zentro guztietan, pertsonalaren, herritarren eta kontraten eskura. Eskualdeko intraneteko euskarri informatikoan ere jarriko da.

2.2.- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN AURKEZPEN LABURRA:

BiEk UNE-EN ISO 14001:2004 arauaren eta Europako 1221/2009 (EMAS III) Araudiaren betebeharrekoetan oinarritutako **Ingurumena Kudeatzeko Sistema** ezarri du, ingurumen-politika betetzen dela bermatzeko:

Ingurumena Kudeatzeko Sistema **BiE**ren ingurumen-jokabidea hobetzeko ezarri da. Helburu orokor hori lortzeko, Ingurumenaren Kudeaketarako arduradunak edo eskuordetutako pertsonak aldiro aztertu eta ebaluatzen dute sistema, hobekuntza-aukerak identifikatu eta gauzatu ahal izateko.

Sistema etengabeko hobekuntzarako PDCA zikloan oinarritu da.

Sistema ezartzeak, behar den eran funtziona dezan, berariazko giza baliabideak esleitzea eta ardura zehatzak hartzea ekarri du.

3. **BiE – BILBO ESKUALDEKO INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA**

3.1 INGURUMEN ALDERDIAK

BiE – Bilbo Eskualdea bere jarduera eta zerbitzuetatik eratorritako ingurumen-eraginak identifikatzeko beharrianaz jabetu da, bere egungo egoera ezeze, iraganekoa eta etorkizunekoa ere aintzat hartuz. Horregatik “IKS-EP-12 Ingurumen-Alderdien identifikazioa” prozeduraren arabera alderdion identifikazioa egin du, garapena kontrolatzeko eta bere ingurumenerako politikaren egokitzapena egiaztatzeko.

3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

LMAUetako kudeaketako ingurumen-alderdiak behin identifikatuta, sistemaren arduradunak ingurumen-alderdiak ebaluatzen ditu Ingurumen-Alderdien Ebaluazio-Taulen arabera, IKS-KP-12 prozedurari erantsitako agiria, ingurumenaren gain, horietatik zeinek daukan eragin esanguratsua zehaztu eta berorren kontrola hobetzeko.

Ohiko eta ezohiko **zuzeneko alderdien nahiz zeharkakoen** ebaluazioa, eginiko jardueretan bildutako informazioan dago oinarrituta, eta bi irizpide hartzen ditu kontuan:

- o **Alderdiaren magnitudea** (alderdia zenbatzea: Kopurua, instalazioen funtzionamendu orduak, etab.).
- o **Alderdiaren izaera** (legezko mugetara hurbiltzea, ingurumen-eragina,...).

Emergentzia-egoeretakoa ingurumen-alderdien kasuan, kontuan izango dira ondoko irizpideak:

- o Emergentzia-egoera gertatzeko **probabilitatea** (emergentzia-egoera zenbat aldiz eman den abiapuntu hartuta).
- o Emergentzia-egoera bakoitzaren balizko eraginaren **garrantzia**.

Kasu bietan, lortutako baloreen biderketak esangura (E) maila emango du:

Esangura-maila	
$E=1$	Baxua
$1 < E \leq 3$	Tartekoa
$E \geq 4$	Altua

Aurretiaz deskribatutako irizpideak aplikatu izanaren azken emaitzak **BiE** – Bilbo Eskualdeari zera ahalbidetzen dio: batetik, bere jarduerak ingurumenari (ingurumen-alderdien identifikazioa) nola eragiten dion eta, bestetik, zein mailatan (ingurumen-alderdi esanguratsuak eta ez-esanguratsuak) eragiten dionezagutzea, informazio hori baliatuz, ingurumen-programak ezartzeko (ingurumenaren gaineko helburuak eta xedeak).

3.4. INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK

Arestian deskribatutako prozeduraren arabera 2010eko Ingurumen-Alderdien Ebaluazioa eginda, eskualde mailan hurrengo hauek hartu dira **esanguratsutzat**:

- Argindarraren kontsumoa
- RAEEko hondakinak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.).
- Hondakin ebakitzailak eta zorrotzak.
- Lanpara- eta fluoreszente-hondakinak.
- Bereizi gabeko hiri-hondakinak
- Kontsumitutako argindarrak sortutako zuzeneko igorpenak.

Zentro batzuetan esanguratsuak direnak: (Ikusi zentroetako datu-eranskina)

- Pilen eta baterien kontsumoa
- Galdarako gas-kontsumoa.
- Berogailuetarako gasolio kontsumoa
- Garbiketako ontzi arriskutsuak
- Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak
- Erabiltzaile eta hornitzaileen jokabidea.

Ingurumen-alderdia	ALO	ALT	ARA	BAS	BEG	BET	CV	DEU	DIR	GAZ	IND	BUR	KAR	LM	LP	MM	OTX	REK	SAG	SA	SI	SAN	TXU	ZOR	ZUR
Folioak	1	3	2	1	1	3	1	1	1	2	1	1	1	1	1	2	1	3	3	1	1	1	1	1	1
Tonerra	1	2	3	1	3	3	1	1	3	1	1	3	3	1	3	2	1	1	1	3	1	1	1	1	1
Pilak eta bateriak	2	2	2	2	2	2	2	2	4	2	2	2	2	2	2	2	2	2	6	2	2	2	2	2	2
Inprimagailuetako kartutxoak	1	2	1	1	1	1	1	1	1	3	1	3	0	1	1	1	1	1	1	1	2	1	2	1	1
Iraungitako medikamentuak	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Aposituak	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Tirak	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Orratzak, xiringak	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Bendak eta gazak	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Bestelako mat. Sanitarioa	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Beste materiala	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Desinfektatzeko produktuak (instrunet)	1	1	1	1	3	1	3	1	0	1	1	3	2	1	1	3	3	3	3	3	3	1	3	1	2
Agua de la red	1	3	1	2	3	3	1	1	1	3	1	3	2	2	1	1	2	1	3	2	2	2	1	3	3
Argindarra	2	6	2	2	2	4	2	2	2	2	2	4	2	6	2	4	2	2	4	4	6	4	2	2	2
Galdarako gasa	0	3	3	9	9		9	3		3	3	0	0	3	3	6		3	3	3	3	9	3	3	0
Galdarako gasolioa						9			3								3								
Ibilgailuetarako erregaia									3																
ordenagailuak...)	6	6	3	3	3	3	6	9	9	6	9	6	3	3	6	6	3	9	3	3	6	3	3	3	3
Pilak eta bateriak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Erradiografiak	1	3	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	1	1	1	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1
Ebakitzaileak eta zorrotzak	3	9	9	3	6	6	6	3	0	6	3	3	3	3	9	3	3	3	3	3	3	3	6	6	3
Lanpara fluoreszenteak	3	9	9	3	3	9	9	6	9	9	3	9	9	3	3	3	3	3	3	3	3	3	9	9	9
Zitostatikoak	1	3	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Iraungitako medikamentuak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Garbiketako ontzi arriskutsuak	9	3	0	9	3	3	3	3																	

Ondoko taulan, 2011an eskualde-mailan identifikatutako ingurumen-alderdi esanguratsuak azaltzen dira, 2010eko datuetatik abiatuta, baita horiekin lotutako eraginak ere.

INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUA	INGURUMEN-ERAGINA	HORRI LOTUTAKO HELBURUA
Argindarraren kontsumoa	Baliabide naturalen murrizketa. Igorpenak atmosferara.	Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: Deustu, Altamira, Buruaga, Mesedeak, Larreagaburu, Otxarkoaga, Sagarmínaga, San Adrian, San Inazio, Santutxu
RAEeko hondakinak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.).	Paisaiaren kalitatea gutxitzea hondakinen pilaketaren ondorioz, energia-kontsumoa berorren kudeaketan. Medioan substantzia arriskutsu aktiboak sartzea	RAEE hondakinak %2 murriztea Zentroa: Deustu
Hondakin zorrotzak / puntadunak (biosanitarioak)		Hondakin biosanitarioak %1 murriztea Zentroak: Altamira, Arangoiti, Begoña, Alde Zaharra, Karmelo, Abusu, San Adrian, Txurdinaga, Zorrotza.
Lanpara-fluoreszente-hondakinak.		Lanpara hondakinak %2 murriztea Zentroa: Zurbaran
Bereizi gabeko hiri-hondakinak	Paisaiaren kalitatea gutxitzea hondakinen pilaketaren ondorioz, energia-kontsumoa berorren kudeaketan.	Hondakinen bereizketa hobetzea ("zabor orokor" gisa bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea) Zentroak: Alonsotegi, Basurtu, Begoña, Indautxu, Buruaga, Mesedeak, Larreagaburu, San Inazio, Txurdinaga, Zorrotza, Administrazioa.
Kontsumitutako argindarrak sortutako zuzeneko igorpenak.	Igorpenak atmosferara (berotegi-efektua, berotze globala).	(Argindarraren kontsumoari lotuta)

Helburua erdiesteko eragingo zaien osasun zentroak, ingurumen-alderdi esanguratsuak antzeman zaizkienak, sartu dira.

Beren izaerak edota erakundearen baliabide murriztek eraginda Ekintza Planari lotuta ez dauden ingurumen-alderdi esanguratsuen kasuan, Operazio-Kontrolaren bitartez eragiten zaie eta **BiE**ko ingurumen-alderdi guztietarako ezarritako jarraipena egiten zaie.

4. XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMENAREN KUDEAKETARAKO PROGRAMAK (EKINTZA PLANAK)

BiEn 24 zentro daude, Bilbo (23) eta Alonsotegi (1) udalerrietan sakabanatuta, eta horiei Eskualdeko Zuzendaritza gaineratu behar zaie. Zentroen artean desberdintasunak eta berezitasunak egon daitezkeen arren, hasieran eskualde mailako helburuak, xedeak eta ekintzak proposatu dira gehienbat; dena den, ingurumen-alderdien identifikazioa eta alderdion ebaluazioa zentroz zentro egin dira. Jakin badakigu ingurumen kudeaketa epe erdi/luzerako proiektua dena.

Hobekuntzarako helburuak jartzerakoan, une honetan Eskualde mailan garrantzitsutzat jo ez diren ingurumen-alderdi batzuk aintzat hartu dira, gerora hala izan daitezkeelakoan edota dagoeneko esanguratsuak direlako **BiE** osatzen duten zentroetakoren batean eta, gainera, iraunkortasunean aurrera egiteko interesgarri jotzen direlako. (Ikusi Otxarkoaga, Etxaniz suhiltzailea eta Abusu Osasun Zentroei dagozkien 6., 7., 8, 11. eta 14. helburuak), helburu horietatik batzuk zeharkako ingurumen-alderdiei —2, 8 eta 11 helburuei dagozkien kasu— egiten die erreferentzia.

Jarraian, 2011rako planteaturiko ingurumenaren hobekuntzarako helburu, xede eta ekintzak betetzeari buruzko ebaluazioaren emaitzak erakusten dira.

* Adierazleerako bezeroen hitzordu kopurua + 4. orrialdeko taularen arabera eskualdeko administrazioako plantilla

Gainera helburuak 3 zentro edo gehiagotan amankomunak direnean taulan eskualdeko emailza gisa jaso da, aldiz, betetze-maila deskribatu orduan datuak osasun zentroka aurkeztu dira.

1. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA	
	Definizioa	2010	2011		Lortua BAI/EZ	
Hondakin biosanitarioak %1 murriztea Zentroak: Altamira, Arangoiti, Begoña, Alde Zaharra, Karmelo, Abusu, San Adrian, Txurdinaga, Zorrotza	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00302	0,00305	Jokabide-ikuskapenak hondakin espezifiko biosanitarioak bereizteari buruz, horiek gehien sortzen diren eremuetan (sendaketa-gelak).	BAI	EZ
				Prestakuntza-hitzaldiak gehien sortzen diren eremuetan, pertsonalari horiek bereizteko modu egokia gogorarazteko.	EZ*	
				Edukiontzia kontsultetatik sendaketa-geletara eta odola ateratzekoetara txandakatzea.	EZ*	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,002989. Lortutako adierazlearen balioa: 0,00305; horrek %0,98ko hazkundea dakar berekin.

Zentrokako helburua: Oro har hondakin ebakitzailen murrizketa eman da (Abusun %8,36ko murrizketa, Txurdinagan %20,04ko murrizketa, Alde Zaharra %10,95eko murrizketa, Begoña %26,50eko murrizketa, Zorrotza %12,55ko murrizketa eta hazkundea

honako osasun zentroetan eman da: Altamiran %1,26koa, Karmelon %21,62koa, Arangoitin %5,06koa eta San Adrianen %52,07koa.

Xede /ekintzen betetze-maila: planifikatutako ekintzak burutu egin dira Eskualdeko zentroetan, hondakinak bereizteko modu egokiari buruzko prestakuntza-hitzaldiak salbu, hondakinak kudeatzeko ikastaroa 2012ra atzeratu da eta.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburua partez lortu izanda, zentro batzuetan bete egin baita, gai arriskutsu aktibo gutxiago sartu dira ingurunean.

2. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Erabiltzaileekin zerikusia daukaten gertaera-kopurua 4koa baino txikiagoa izatea Zentroak: guztiak	Gertaera-kopurua (erabiltzaileek eragindakoak)	45	44	Ingurumenarbi buruzko buletinetan zentroetan hondakinak behar bezala bereiztearekin zerikusia daukan artikulua txertatu.	BAI	BAI
				Ingurumen-jardunbide egokiak erabiltzaileen artean zabaltzea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: 2010ean Eskualdean 45 gertaera erregistratu ziren eta 2011n 44 erregistratu dira, %2,22ko murrizketa eman da. Helburu hori jorratzen jarraituko dugu. Oro har zentro gehienetan helburua bete egin da zentroko 4 gertaera baino gutxiago erregistratu baitira.

Erregistratutako gertaerek edonoren eskura dauden edukiontzietan hondakinak behar ez bezala bereizteari lotutakoak dira. Interesa daukaten alderdiei informazioa emateko eta kontzientzian eragiteko lanean jarraitu behar dela deritzogu.

Zentroko helburua: Ondokoetan izan ezik: Etxaniz suhiltzailea, Deustu, Buruaga eta Errekalde, gainontzeko zentro guztietan bete da.

Xede /ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Erdietsitako helburu honek erabiltzaileek hondakinak behar bezala bereiztu ditzaten sensibilizatzeko balio izan du.

3. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ			
	Definizioa	2010	2011		Xedea		Helburua	
					(S)	(A)	(S)	(A)
Pilen kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Sagarminaga (S) Arangoiti (A)	pila kg/ hitzorduak (erabiltzaileak)	0,0001 0	0,00005 0,0001	Osasun zentroetako langile guztiei berriz kargatzeko pilak erabili behar direla gogorarazteko e-maila bidali.	BAI	BAI	BAI	EZ
				Hilabetean behin, Osabideko ohar bidez, berriz kargatzeko pilak erabiltzeko beharra gogorarazi	BAI	EZ		
				Profesional berrientzako harrera protokoloan ingurumen-jardunbide egokiak txertatu.	BAI	EZ		
				Langileei zentroetan pila arruntak berriz kargatzeko pilekin ordeztuko direla jakinaraztea	BAI	BAI		
				Berriz kargatzeko pila eta bateriaz hornitzea.	BAI	BAI		
				Ahal den neurrian, kargagailu eta sare-egokigailuz hornitzea.	BAI	BAI		

Helburuaren betetze-maila: Sagarminagan rdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,000099 pila kg / erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,00005 pila kg / erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %57,25ko murrizketa dakar. Arangoitin. Aldiz, pila kontsumoa hazi egin da 2010ean ez baitzen pila eskaririk egin aurreko urtekoak baitzituzten.

Xede /ekintzen betetze-maila: Sagarminagan proposatutako Xede/Ekintza guztiak bete egin dira, Arangoitin, berriz, Osabiden bitartez ez da oharrik bidali eta ingurumen-jardunbide egokiak ez dira profesionalentzako harrera-protokoloan txertatu (egun garatze bidean den protokoloa).

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburua partez beteta, baliabide naturalen kontsumoa murriztea lortu da. Eta produktu hauek ekoizteko prozesuetako hondakin, igorpen eta hondar-uren isuriak murrizten lagundu da.

4. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA	
	Definizioa	2010	2011		Lortua	
					BAI/EZ	
					Xedea	Helburua
Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: Deustu, Altamira, Buruaga, Mesedeak, Larreagaburu, Otxarkoaga, Sagarminaga, San Adrian, SanI nazio, Santutxu	Kwh / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,7382	0,6781	Kontsumo arduratsua gogorarazteko etengailuen ondoan eranskailuak jarri.	BAI	BAI
				Energia-eraginkortasunari buruzko azterketarako lankidetzak: Deustu, Otxarkoaga eta Altamira.	BAI	
				Langileen artean ingurumen-jardunbide egokiak zabaltzea	BAI	
				Argindarraren kontsumoari buruzko artikulak argitaratzea Begirada Batez buletin informatiboan	BAI	
				Posible den guztietan ekipoak itzali egin behar direna gogorarazteko eranskailuak jarri	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestera espero zen adierazlearen balioa: 0,7367 kwh/ erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,6781 kwh/erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %8,14ko murrizketa dakar.

Zentroko helburua: Bete bakarrik ez, hobera ere egin du ondoko zentroetan murrizketak izan baitira: Larreagaburu (%11,74), Mesedeak (%12,59), Buruaga (%12,46), Otxarkoaga (%14,04), Deustu (%8,54), Sagarminaga (%16,27) eta okerrera egin du Santutxukoan (%1,255 hazkundera) eta San Inazio (%0,62ko hazkundera).

Xede /ekintzen betetze-maila: Bai osasun zentroetako langileei baita erabiltzaileei ere banatutako informazio-agirien bitartez, ingurumen-jardunbide egokiak zabaltzen jarraitzen dugu, bereziki, energia-kontsumoa murrizteko beharrezana nabarmenduz. Kontsumo arduratsua gomendatzeko eranskailuak jarri dira. Ingurumen-buletinetan ere artikulak txertatu dira.

Gainera, Altamira, Deustu eta Otxarkoagako Osasun Zentroetan energia-eraginkortasunari buruzko azterketa egin da.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez, baliabide naturalen kontsumoa eta atmosferarako igorpenak murriztea lortu da.

5. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA	
					Lortua	
					BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Hondakinen bereizketa hobetzea ("zabor orokor" gisa bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea) Zentroak: Alonsotegi, Basurtu, Begoña, Indautxu, Buruaga, Mesedeak, Larreagaburu, San Inazio, Txurdinaga, Zorrotza, Asministrazioa	Hondakin kg/ hitzorduak (erabiltzaileak)	0,02118	0,0209	Biltegietan, sendaketa-geletan... plastikoak bereizteko edukiontzia jartzea	BAI	BAI
				RAEEtarako (aparatu elektronikoak) edukiontzia jartzea, zentroko gailuak beste zentro batzuetatik bidaliko gailuetatik bereiziz. INDAUTXU	BAI	
				Langileei informazioa ematea zentroetan bereizten diren hondakinez.	EZ	
				Langile berriei hondakinak kudeatzeko prestakuntza ematea.	BAI	
				Zentroan lanean hasi berriei hondakinen kudeaketari buruzko triptikoa banatzea.	BAI	
				Officean plastikoak birziklatzeko edukiontzia jartzea, kafe-makina dagoen tokian hain zuzen. SAN INAZIO	BAI	
				Papererako edukiontzia jartzea sendaketa-gelan eta erizaintzako kontsultan. ALONSOTEGI	EZ	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,02097ndakin kg/ erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,0209 ondakin kg/ erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %1,26ko murrizketa dakar.

Zentroko helburua: Bete bakarrik ez, hobera ere egin du ondoko osasun zentroetan murriztu egin baita: Indautxun (%53,23), Begoñan (%17,48), Zorrotzan (%33,54), Basurtun (%9,01), Alonsotegin (%3,44), Mesedeetakoan (%7,54), Txurdinagan (%11,64), Buruagan (%5,71) eta Administrazioan (%30,55). Helburua ez da Larreagabururik (%0,93 hazi da) eta San Inazio (%17,34 hazi da).

Xede /ekintzen betetze-maila: Oro har ekintzak burutu egin dira, zentroetan plasitkoak eta RAEak bereizteko edukiontzia jarri dira, baina, zentro batzuetan, edukiontzi horiek jarri izanari buruz langileei emandako informazioa ez da egokia izan. Langileei hondakinen kudeaketa egokiari buruzko informazioa ematen jarraitzen da hasi berriei triptikoa ematen baitzaie. Alonsotegin sendaketa-gelan eta erizaintzako kontsultan ez dira papererako edukiontzia jarri zentro berrira lekuz aldatzeko pentsuan baitaude.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Murriztu egin dira hondakin ez-arriskutsuak. Helburu horren bitartez, murriztu egin da kontsumoa eta lurzoruaren eta atmosferaren gaineko eragina, tratamendu eta pilaketa ekintzei esker.

6. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Paper-kontsumoa %0,5 murriztea Zentroa: Otxarkoaga	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,0044	0,0052	Folio kontsumoari buruzko azterketa egitea	BAI	EZ
				Kontsumo-gune garrantzitsuena den aldetik, kopia kopurua kontrolatzea	BAI	
				Zentroetako langileei kartel informatiboei lotutako aurrezpen-planaz informazioa eman	BAI	
				Faxean eta fotokopiagailuan paperaren erabilera arduratsua gogorarazteko kartela	BAI	
				Papera erabiltzeko jardunbide-egokiak zein diren azaldu langileei	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestera espero zen adierazlearen balioa: 0,00436 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,0052 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak); horrek kontsumoaren %17,15eko hazkundea dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Helburua planteatu den osasun zentroetan planifikatutako ekintzak burutu egin dira, papera erabiltzeko jardunbide-egokiak langileei azaltzearena izan ezik.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

7. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Behin erabili eta botatzeko pilen %25 berriz karga daitezkeenekin ordeztu. Zentroa: Errekalde	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,0001	0,000008	Hornikuntza zerbitzuari berriz karga daitezkeen pilak eskatu	BAI	BAI
				Pilaz hornitzeko eta kargatzeko zirkuitoa definitzea	BAI	
				1. eta 2. seihilekoan zein kontsultetan ordeztuko diren pila-motak definitu eta aldaketa egin	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,000075 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,000008 kg/hitzorduak (erabiltzaileak); horrek %93,36ko murrizketa dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez, baliabide naturalak zaindu egiten dira eta produktu horiek ekoizteko orduan sortzen diren hondakin, igorpen eta ur-hondakin isurketen ekoizpena ekidin egiten da.

8. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Etxeko hondakin ebakitzailak ontzi desegokietan eman ohi dizkiguten erabiltzaileen gertaerak murriztea Zentroa: Errekalde	Gertaera-kopurua	3	3	Informazio-oharra idatzi eta Eskualdera bidali ilarak (hitzorduek) kudeatzeko pantailetan txertatzeko.	BAI	EZ
				Osasun-guneko hileroko kanpainan jartzeko posterra diseinatzea.	BAI	
				Osasun zentroko profesional guztiei Osabide eta posta elektronikoko bidez jakinaraztea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: <3. Lortutako adierazlearen balioa: 3, horrek zera esan nahi du: era horretako gertaeretan, erabiltzaileen eskutik datozenetan, ez dela murrizketarik eman.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

9. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ			
	Definizioa	2010	2011		Xedea		Helburua	
					(R)	(A Z)	(R)	(A Z)
Gas kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Errekalde (R) Alde Zaharra (A Z)	Kwh / hitzorduak (erabiltzaileak)	1.239	0.967	Galdaren mantenimenduaz arduratzen den enpresarekin harremanetan jarri barruko termostatoa 1º jaitsi dezan.	BAI	BAI	BAI	BAI
				Osabideren oharraren bidez, bero direnean, leihoa ireki ordez, erradiadorea itxi dezaten mezua zabaldu profesionalen artean.	BAI	BAI		
		1.323	0.990	Arreta espezializatuko arduradunari jakinarazi neurri hori bertako profesionalen artean zabal dezaten.	BAI	BAI		

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 1,226 kwh/ erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,967 kwh/erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %21,95eko murrizketa dakar. Alde Zaharrean lortzea espero zen adierazlearen balioa 1,310 kwh/ erabiltzaile hitzordukoa zen. Lortutako balioa 0,990 kwh/ erabiltzaileen hitzordukoa izan da. Hortaz, %25,12ko murrizketa.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez, baliabide naturalen kontsumoa eta atmosferarako igorpenak murriztea lortu da.

10. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Hondakin biosanitarioak %3 murriztea Zentroak: Etxaniz suhiltzailea	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00344	0,0036	Lauhileko kontsultetako kontrol zehatza azterketetan edukiontzien	BAI	EZ
				Bete gabe dauden edukiontziak sendaketa-geletatik txandakatzea hala dagokionean.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,00344. Lortutako adierazlearen balioa: 0,0036; horrek %2ko hazkundea dakar berekin.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

11. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Beren beregi horretarako diren edukiontzietan medikamentu bilketa areagotzea. Zentroa: Etxaniz suhiltzailea	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00240	0,0017	Hornikuntza zerbitzuari berriz karga daitezkeen pilak eskatu	BAI	EZ
				1. eta 2. seihilekoan zein kontsultetan ordeztuko diren pila-motak definitu eta aldaketa egin.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,002472 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,0017 kg/hitzorduak (erabiltzaileak); horrek %27,792ko murrizketa dakar. Zentroetako erabiltzaileen esku dagoen puntua da.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez zera lortu nahi da: beste era batera, oro har ezagutza faltagatik, zabor orokorrera botako liratekeen hondakinen bereizketa zuzena egiten laguntzea.

12. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ			
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua		
						(Z)	(G)	(O)
Ur kontsumoa %2 murriztea Zentroak: Zurbaran (Z) Gazteleku (G) Otxarkoaga (A Z)	M³ / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00341 0,0023 0,0058	0,00343 0,0021 0,004	Kontsumo arduratsua gogorarazteko eranskailuak jartzea iturrien aldamenean	BAI	EZ	BAI	BAI
				Langileen artean ingurumen-jardunbide egokiak zabaltzea	BAI			
				Komun publikoetako txorrotetan perlizadoreak jartzeko bideragarritasun-azterketa egitea.	EZ			
				Komun publikoetako txorrotetan ura ateratzeko pultsadoreak jartzeko bideragarritasun-azterketa egitea.	EZ			

Helburuaren betetze-maila: Erdiestera espero zen adierazlearen balioa: 0,003341 m³/ erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,00343 m³/erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %0,44ko hazkundera dakar. Gaztelekun lortzea espero zen adierazlearen balioa 0,002254 m³/ erabiltzaile hitzordukoa zen. Lortutako balioa 0,0021 kwh/ erabiltzaileen hitzordukoa izan da, kontsumoa %9,19 murriztu dela. Otxarkoagan lortzea espero zen adierazlearen balioa 0,005684 m³/ erabiltzaile hitzordukoa zen. Lortutako balioa 0,004 kwh/ erabiltzaileen hitzordukoa izan da, kontsumoa %27,83 murriztuz.

Xede /ekintzen betetze-maila: Apurtu zirenean ura era arduratsuan kontsumitzeko eranskailuak aldatu egin ziren eta erabiltzaileen artean jardunbide-egokiak zabaltzea. Zentroetako txorrotetan perlizadoreak edo pultsadoreak ezin izan dira jarri.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu hori partez lortzearekin baliabide naturalen kontsumoa murriztea lortu da.

13. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Garbiketa produktu arriskutsuak %25 murriztea Zentroak: Basurtu, Gazteleku, Karmelo, Errekalde	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00499	0,000241	Egun baliatzen diren garbiketa produktuak aztertzea	BAI	BAI
				Arriskugarriak diren garbiketa produktuak ekologikoak direnekin ordeztzea	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa:0,00374 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,000241 kg/hitzorduak (erabiltzaileak); horrek %95,18ko murrizketa dakar. Basurtun, Gaztelekun eta Karmelon, zentroakoko helburua kontuan izanda, murrizketa %100ekoa izan da eta Errekalden, aldiz, %85,68koa.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez murriztu egin da ingurumenera substantzia arriskugarri aktiboen isurketa.

14. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Tone kontsumoa %5 murriztea Zentroa: Abusu	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00027	0,00020	Inprimagailu arruntak alde bietatik inprimatzeko aukera daukaten inprimagailuekin ordeztzea.	BAI	BAI
				Berriz karga daitezkeen kartutxoaren balorazioa	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa:0,0002565 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,00020 kg/hitzorduak (erabiltzaileak); horrek %27,18ko murrizketa dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Arriskugarriak ez diren hondakinak sortzea murriztu egin da. Tratamendu eta bilketa jardueri esker kontsumoa murriztu da, baita zoruko eragina eta atmosferakoa.

15. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
RAEEn (lanparak) kontsumoa %2 murriztea Zentroa: Deustu	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00013	0,00008	Luminariak aztertzea eta lanparak kontsumo eraginkordunekin ordeztzea.	BAI	BAI
				Zentroetan bereiztu egiten diren hondakin desberdinei buruzko informazioa ematea.	BAI	
				Langileei hondakinen kudeaketari buruzko prestakuntza ematea.	EZ	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa:0,0001274 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,00008 kg/hitzorduak (erabiltzaileak); horrek %38,94ko murrizketa dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira, hondakinei buruzko prestakuntza izan ezik.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez murriztu egin da ingurumenera substantzia arriskugarri aktiboen isurketa.

Tratamendu eta bilketa jardueri esker kontsumoa murriztu da, baita zoruko eragina eta atmosferakoa.

16. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2010	2011		Xedea	Helburua
Lanpara-hondakinak%2 murriztea Zentroa: Zurbaran	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,0006	0,0001	Luminariak aztertzea eta lanparak kontsumo eraginkordunekin ordeztzea.	EZ	BAI

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa:0,000588 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,0001 kg/hitzorduak (erabiltzaileak); horrek %88,31ko murrizketa dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Luminariak ez dira aztertu, hala ere erretako lanparak kontsumo eraginkordunekin ordeztu dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez murriztu egin da ingurumenara substantzia arriskugarri aktiboen isurketa.

5. INGURUMEN-JOKABIDEA

Aurreko adierazpenen aldean, egokitzen jo da, ahal den guztietan, Bilbo Eskualdeko balio globalak aurkeztea, horrek informazio zabalagoa ematen dielako alderdi interesatuei. Zentroko datuak dokumentuaren azkenean daude erantsita.

5.1 OINARRIZKO ADIERAZLEAK ETA INGURUMENENKO BESTE ADIERAZLE BATZUK

Ezarritako adierazleek urteko guztizko eragin eta/edo kontsumoak erlazionatzen dituzte gure zentroetan atenditutako erabiltzaileen zita-kopuruarekin eta eskualdeko zuzendaritzako pertsonaleko plantillako kopuruarekin, uste baitugu horrela hobeto islatzen dela **BiE** – Bilbo Eskualdeko ingurumen-jokabidea. Masa kontsumoak eta sortutako hondakinak kg-tan adierazi dira, zentroetan islatutako datuekiko konparazioa errazteko, zenbait kasutan, tonetan adieraziak izatea eragozten duten kantitate oso txikiei egiten baitie erreferentzia. Azken horiek, era berean, dagokion adierazlea lortzeko asmoz, hitzordu kopuruarekin lotzen dira.

Jarraian, 2010eta 2011 urteei dagozkien adierazle batzuen (esanguratsuak izan zein ez izan) datu kuantitatiboak eman dira.

Eranskinetan, 7. atalean, **BiE** osatzen duten zentro bakoitzeko datuak eman dira.

** Adierazleetan baliatutako zentroetako hitzordu-kopurua/erabiltzaileko **BiE**ko Kontabilitate Sailak eman du.*

- zeinuk, oinarrizko adierazleen %ean, adierazten dute jokabidea ez dela hobetu, eta, alderantziz, horrelako zeinurik ez dagoenean, ingurumen-alderdi horretan hobekuntza gertatu dela adierazi nahi da; erabiltzailearen hitzorduekin lotutako datuak salbu.

Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Ura


Uraren urteko guztirako kontsumoa (m³)

- Uraren kontsumoa: (EZ ESANGURATSUA)**

	2009	2010	2011	2010-2011 urteen arteko aldea	%
Ur-kontsumoa (m³)	15.977	17.872*	15.974,8	-1.897,2	-10,62
Erabiltzaileen hitzordu kopurua	3.477.249	3.938.744	4.154.568	215.824	5,47
Ur kontsumoa / erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	0,00459	0,00454*	0,00384	-0,00069	-15,26

*eguneratutako datua

2010ean 17.872 m³ kontsumitzetik 2011an 15.974 m³ kontsumitzera pasatu gara, horrek %10,62ko murrizketa dakar. M³/erabiltzaileen hitzordu-kopurua adierazlea kontuan hartzen badugu, %15,26ko murrizketa izan da. Datuak Uren Partzuergoak emandako fakturretatik atera dira.




Oinarritzko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Energiaren efizientzia

1. Energiaren guztirako kontsumo zuzena. (Mwh)

	2009	2010	2011	2010-2011 urteen arteko aldea	%
Argindarraren kontsumoa (Mwh)	3.198,70518	2.907,662*	2.817,362	-90,300	- 3,11
Berogailuetako gas kontsumoa (Mwh)	2.652,74272	2.819,874*	2.305,590	-514,284	- 18,24
Berogailuetako gasolioaren kontsumoa (Mwh)	421,84308	360,26787	153,26014	-207,007	- 57,46
Energiaren guztirako kontsumo zuzena (Mwh)	6.273,29098	6.087,804	5.276,212	-811,592	-13,33
Erabiltzaileen hitzorduak + admin. plantilla	3.477.249	3.938.744	4.154.568	215.824	5,47
Energiaren guztirako kontsumo zuzena (MwH) / erabiltzaileen hitzorduak + admin. plantilla *1000	1,80410	1,5456*	1,2699	-0,2756	-17,83

eguneratutako datua

Energiaren guztirako kontsumo zuzena / erabiltzaileen hitzordu kop. +adm. plantilla



- Argindarraren kontsumoa (ESANGURATSUA)**

Biko zentroetako eta bere eskualdeko zuzendaritzako bulegoetako argindarraren guztirako kontsumoa 2010ean 2,907,662 Mwh izan zen eta 2011an, berriz, 2.817,362 Mwh-koa; Mwh/ erabiltzaileen hitzordu kopurua + administrazioko plantilla adierazlea

kontuan izanik, eskualde mailan %8,14eko murrizketa eman da. Pertsonalaren kontzientziazioa handitu da ingurumen-jardunbide egokien arloan. Lanparak, erre ahala, kontsumo txikikoekin ordeztu dira. Eskualdeko zentro batzuetan, energia-eraginkortasunari buruzko azterketa abiatu da (Deustu, Altamira eta Otxarkoaga).

Zentroei dagozkien datuak zentroetako tauletan ikus daitezke.

Datuak hornitzaileek igorritako fakturetatik atera dira.

- **Galdaretako gasaren kontsumoa (ESANGURATSUA*)**

2010ean, galdaretako gas-kontsumoa 2.819,817 Mwh-koa izan da eta 2011n, berriz, 2.305,90 Mwh-koa, hortaz, 2011n %21,49ko murrizketa izan da, Mwh/ erabiltzaileen hitzordu-kopurua + administrazioko plantilla adierazlea kontuan hartuta. Kontsumoa negu batetik besterako klimatologiaren aldaketak eragin ohi du.

*Adierazle esanguratsua Basurtu, Begoña, Alde Zaharra, Larreagaburu eta Santutxuko osasun zentroetan. (zentrooi dagozkien datuak zentroko tauletan kontsulta daitezke).

Datuak hornitzaileak emandako fakturatatik atera dira.

- **Galdaretako gasolioaren kontsumoa (ESANGURATSUA*)**

2011an, galdaretako gasolioaren kontsumoa %59,67 murriztu da, Mwh/ erabiltzaileen hitzordu-kopurua + administrazioko plantilla adierazlea kontuan hartuta, 2010ean 360,268 Mwh kontsumitu baitzen eta 2011n, aldiz, 153,260 Mwh.

*Adierazle esanguratsua Etxaniz suhiltzailea Osasun Zentroan. Zentroari dagozkion datuak zentroko tauletan kontsulta daitezke. Aurreko kasuan bezala, kontsumoa negu batetik bestera aldatu daiteke klimatologiaren eta berriz kargatzea egindako dataren arabera.

- **Automozioko gasolioaren kontsumoa (EZ ESANGURATSUA)**

Asistentziarako erabiltzen diren automobilak eskualdeko zuzendaritzari esleituta daude.

2010ean, automozioko gasolioaren kontsumoa 7.410,48 litrokoa izan zen, eta 2011an 6.342,44 litro kontsumitu dira; beraz, %14,41 murriztu da kontsumoa.

Datuak hornitzaileak emandako fakturatatik atera dira.

Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Energiaren efizientzia

2. Energia berriztagarriaren guztirako kontsumoa:

Bilbo Eskualdeak ez dauka energia berriztagarrien iturririk


Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Efizientzia materialen kontsumoan

Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua.

	2009	2010	2011	2010-2011 urteen arteko aldea	%
Material kontsumoa jarduera sanitarioan (Tn)	233,337	223,131	237,273	14,142	6,338
Folio-kontsumoa (Tn)	27,497	23,669	24,043	0,373	1,578
Kontsumoa Inprimagailu/ fotokopiagailu/ drumaren tonerra (Tn)	1,573	1,331	1,241	-0,089	-6,724
Pila eta baterien kontsumoa (Tn)	0,430	0,274	0,090	-0,184	-67,159
Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua. (Tn)	262,874	248,422	262,56	-14,13	-5,69
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.477.249	3.938.744	4.154.568	215.824	5,47
Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua/ erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla*1000	0,0755	0,06307	0,632	0,0002	0,24

*Jarduera sanitarioari lotutako kontsumoaren atalean honakoak biltzen dira: medikamentuak, aposituak, tirak, orratzak, xiringak, tutuak, bendak, gazak, eta momenturen batean kontumo handiko artikulutzat jotako beste material batzuk.

Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua/ erabiltzaileko hitzordu kopurua+adm. plantilla.




• Pilen eta baterien kontsumoa (ESANGURATSUA*)

Bateria-kargagailuak erabiltzeko bideragarritasun-azterketa egin da, eta zentro guztietara banatu dira. Dena dela, ez da posible izan zentro guztietan pila normalak kargagarriei ordezkatzea, profesional batzuen mesfidantzaz, eta langileak seguru sentitzen ez direlako prozedura diagnostikoetan erabilitako pilen kargen fidagarritasunaz; hala eta guztiz ere, Eskualdeko azken balantzeak, pila- eta bateria-kontsumoa %68,87 murriztu dela adierazi du. Kontsumitutako pila guztietatik 14,68 pila kargagarriei dagokie. Zentroetako arduradunei ordezkapen horrek dakartzan onurak adierazi zaizkie, (zentroetako arduradunei e-maila), gainontzeko langileei ere jakinarazi zaie ingurumenari buruzko galdetegiaren bitartez. Aurrerantzean ere horri ekingo diogu.

*Adierazle esanguratsua Sagarminagan eta Eskualdeko Zuzendaritzan.

BiEko Hornidura Sailak emandako datuak

Pila kontsumoa / erabiltzaileen hitzordu kopurua+ admin. plantilla




HONDAKINAK

Oinarritzko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Hondakinak

1. Hondakinen urteko guztirako sortzea

	2009	2010	2011	2010-2011 urteen arteko aldea	%
Hondakin arriskutsuak (Tn)	21,052	21,911*	24,803	2,892	13,19
Bereizitako hiri-hondakin (Tn)	54,007	55,605	46,993	-8,613	-15,49
Bereizi gabeko hiri-hondakinak (Tn)	88,219	83,429	86,891	3,461	4,15
Urtean guztira sortutako hondakinak (Tn)	163,278	160,946	158,687	-2,259	-1,40
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazio plantilla	3.477.249	3.938.744	4.154.568	215.824	5,47
Urtean guztira sortutako hondakinak/ erabiltzaileen hitzorduak + administrazio plantilla * 1000	0,04696	0,04087	0,0382	-0,00267	-6,53


Guztira sort. Hond./ erabiltzaileko hitzordu kop+adm. plantilla



Guztira, %1,40 hondakin gutxiago sortu dira, eta kontuan hartuta erabiltzaileak eta, beraz, jarduera, areagotu egin direla, *Tn hondakin guztira / erabiltzaileen hitzorduak + administrazio plantilla* adierazlearen azken balantzeak %6,53ko murrizketa erakutsi du.

Zabor orokorre dagokienez, egoera normaletan sortutakoak izan dira aintzat eta ez eraikuntzatik eratorritako hondakinak (Deustu, Errekaldeko osasun zentroetan eta Eskualdeko Zuzendaritzan egindako obretan sortutako hondakinak hain zuzen). Egoera anormaletan sortutako hondakin hondakin kopurua 28.4550 kg-koa izan da eta horrek ez luke ahalbidetuko sortu ohi diren

hondakinen konparazio egokirik (hondakin arriskutsuak, bereizitako hondakin ez arriskutsuak eta bereizi gabeko hondakin ez arriskutsuak)



2. Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak


	2009	2010	2011	2010-2011 urteen arteko aldea	%
Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak (Tn)	21,052	21,911*	24,803	2,892	13,19
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.477.249	3.938.744	4.154.568	215.824	5,47
Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak/ erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla * 1000	0,00605	0,00556	0,00597	0,00041	7,32

**Eguneratutako datua*

Hondakin arriskutsuetako batzuk erabiltzaileen behar sanitarioen arabera sortzen dira, adibidez hondakin ebakitzailak / zorrotzak eta zitostatikoak; erakundearen iritziz, zaila da horien gainean jardutea, eta beti lehenesten da jarduera sanitarioa era egokian garatzea, nahiz eta hondakin horien kontrol zorrotza egiten den.

Bestalde, zentroetan **Puntu Berdeak** mantentzen dira. Erabiltzaileek erradiografiak, pilak eta iraungitako botikak utz ditzakete bertan. Hondakin horietakoren baten kantitateak gora egin du; dena dela, hondakin horiek gehitzeak ez dakar berekin zentroaren ingurumenarekiko jokabide okerragoa. Alderantziz, erakunde honen zuzendaritzak uste du erabiltzaileek hondakin horiek gehiago biltzeak berorien kudeaketa egokia dakarrela. Hondakinok baimendutako kudeatzailearen bitartez kudeatzen dira.

Sortutako hondakin arriskutsuen grafikoa erakusten da (euretako zenbaiten kasuan sortutako kantitatea hain txikia izan da ezen kg-tan adierazi baita).



Datuok hondakinak kudeatzen dituzten agenteek eman dituzte.

- **Ebakitzaileak eta zorrotzak, zitostatikoak eta baztertutako medikamentuak (ESANGURATSUA*)**

	2009	2010	2011	2010-2011 urteen arteko aldea	%
Ebakitzaileak eta zorrotzak (Tn)	11,976	11,902	12,677	0,775	6,5
Zitostatikoak (Tn)	1,692	1,735	1,753	0,018	1,04
Baztertutako medikamentuak (Tn)	4,951	5,619	7,568	1,948	34,66
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.477.249	3.938.744	4.154.568,000	215.824	5,47

*Hondakin ebakitzaileen eta zorrotzen kopurua esanguratsua izan da zentro hauetan: Altamira, Arangoiti, Begoña, Etxaniz, Alde Zaharra, Gazteleku, Abusu, Txurdinaga eta Zorrotza.

